

# AURKEZPENA

FZ taldea gara eta eskaintzen dugun zerbitzua garraio publikoaren mugikorreko aplikazio bat da, gure denbora aurrezten lagunduko diguna. Izan ere, Zenbatetan egon zara autobus edo trenari itxaroten noiz etorriko den jakin gabe? Edo zenbatetan konturatu zara greba dagoela garraio publikoan tren edo autobus geltokira iritsi orduko?

Gertaera hauek, egunerokoan jende askori gertatzen zaizkiola ohartu gara. Orduan, arazo guzti hauek saihesteko, guk, FZ-ko taldekideak Telmo Luqui, Aslam El morsli , Adam Learg eta Txomin San Juanek soluzio bat emateko garraio publikoarekin arazoak ekiditeko aplikazio bat sortzearen beharra ikusi dugu.

Gure aplikazioak, GPA izena du; eta bere helburu nagusia egunerokoan garraio publikoa (trenak eta autobusak) erabiltzen duen jendeari denbora aurrezte da. Izan ere, nori ez zaio inoiz gertatu trenera edo autobusera berandu doala pentsatzea eta geltokira iritsi orduko, trenari oraindik denbora pila bat geratzen zaiola konturatzea? Gainera, taldekide bakoitzak bere lagun eta gertukoekin hitz egin ostean jende askori gertatzen zaion egoera dela konturatu gara.



